

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako arte, kultura eta sormen arloetako proposamenen erregistro profesionalak 161 proiektu berri gehitu ditu

948 Merkatua Nafarroako Arteen Merkatuaren bigarren ediziorako aurkezpenak erregistratu eta standak eskatzeko epea ireki da

Astelehena, 2018.eko uztailak 2

Guztira, 161 proiektu berri inskribatu dira Kultura Zuzendaritza Nagusiko Kultur Ekintzaren Zerbitzuak 2017an abiarazi zuen Nafarroako arte, kultura eta sormen arloetako proposamenen erregistroan. [Kultura Zuzendaritza Nagusiaren](#) webgunean eskuragarri dagoen erregistro honen bigarren deialdia maiatzaren 14tik 31ra bitartean ireki zen. 2017an erroldatutako Nafarroako artista profesionalek eta orain arte inskribatu gabe zeuden beste artista batzuek ere parte hartu dute proposamen berrien bitartez.

Deialdi honetan erregistratu diren 161 proposamenei aldeztu aurretik inskribatu eta indarrean dauden beste 414 proposamen gaineratu behar zaizkie. Hortaz, erregistro honek egun Nafarroako arte, kultura eta sormen arloetako 575 proposamen ditu guztira.

Musika da proposamen gehien bildu duen esparru artistikoa, 182 izen-ematerekin. Horren ondotik daude Arte Eszenikoak (127); Liburu, Disko eta bestelako euskarrien Argitalpena (83); Arte Plastikoak (82); Bestelako industria kultural, sortzaile eta digitalak (56); eta Zinema eta TB, 46 proposamen erregistratuak dituela.

Erregistro honetan bildutako datu-basea hainbat azoka sektorialetan parte hartzeko eta Iruñean, azaroaren 21etik 23ra antolatuko den 948 Merkatua Nafarroako Arteen Merkatuaren bigarren edizioan programatutako proposamenak hautatzeko erabiliko da.

Aurkezpenak eta standak 948 Merkatuan

Iruñeko hainbat lekutan arratsalde eskainiko diren erakustaldi artistikoez gain, goizetan 948 Merkatua PRO delakoa egingo da Baluarte atarian. Profesionalen arteko topagunean proiekturen bat aurkeztu edo stand bat eskatzeko izena eman nahi duten enpresek eta profesionalek 948 Merkatua Nafarroako Arteen Merkatuaren webgunean dauden formularioak erabili behar dituzte.

Standak izen-emateen hurrenkeraren arabera esleituko dira. Antolatzaileek, dagozkien batzorde artistikoen bitartez, esparru horretan ikusgai izanen diren proposamenak eta eskaerak hautatuko dituzte, behar den aurrerapenez jakinaraziz. Stand eta aurkezpenen proposamenak egiteko epea 2018ko urriaren 1a arte egongo da irekita.

Standa [esteka honetan](#) eska daiteke, eta aurkezpenak [hemen](#) inskriba daitezke.

948 Merkatua Nafarroako Arteen Merkatua arte plastikoak, arte eszenikoak, musikak, zinema eta bestelako industria kultural eta sortzaileak tarteko dituen azoken azoka da. Bigarren ediziorako artisten, profesionalen eta kazetarien akreditazioak eska daitezke dagoeneko 948 Merkatuaren [webgunearen bitartez](#).